

Entzute prozesuari lotutako estrategiak

1. Entzun aurretik

- Entzungo duten testuaren gaia aipatzea.
- Aurre ezagutzak azaleratzea.
- Entzuketaren zertarakoa azpimarratzea.
- Ongi zehaztea zer egingo duten entzuketatik ateratako informazioarekin.
- Entzungo dituzten zenbait hitz zailen inguruko argibideak ematea.
- ...

2. Entzun bitartean

- Entzuketa prozesuan informazioa eta datuak jasotzeko teknikak erabiltzea
(oharrak idatzi, txantiloak bete, lehendik planteatutako galderak erantzun...)
- Hipotesiak adierazi eta egiaztatzea.
- Entzuketa prozesuan sortutako zalantzak eta zailtasunak argitzea.
- ...

3. Entzun ondoren

- Entzundakoa interpretatzea eta egiaztatzea.
- Informazioa berrantolatzea eskemen edota laburpenen bidez.
- Informazioa erabiltzea, aurrez ezarritako helburuaren arabera.
- ...

Diskurtso zatietatik abiatzea komeni da, inferentziak egiten laguntzeko: elkarriketa zati batetik abiatu, solaskideak zertaz ari diren asmatu, zer gairekin egon daitekeen erlazionatuta adierazi...

Talde lana bultzatu behar da entzunaldietan ikasleek entzun dutenaren gaineko interpretazioa egin dezaten. Interakzioa sustatzea modurik eraginkorrena da interpretazioari laguntzeko, ideiak, sentimenduak elkarrekin partekatzeko ...